



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 19a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, TRW Automotive España, S.L. enpresak Volkswagen Navarra, S.A.ko zuzendaritzarekin eta Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin enpresaren etorkizuneko egoerari buruz izandako bilerari buruzkoa. Carlos Couso Chamorro jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Liburutegia kudeatzeko sinatutako iraganaldi baterako hitzarmenari buruzkoa. Consuelo Satrustegui Marturet andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trena dela-eta egindako obrarengatik Sustapen Ministerioari 30 milioi euro erreklamatzeari buruzkoa eta hitzarmenaren jarraipen batzordearen hurrengo bilerari buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, CUNek Unibertsitateko langileei 2012, 2013, 2014 eta 2015. urteetan egiazki emandako osasun laguntzei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, TRW eta General Electric enpresen egungo egoerari eta horrek Nafarroako Gobernuak egindako erreforma fiskalarekin izan dezakeen loturari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko osasun-hitzarmena bertan behera uztearen ondorioz sortutako den aurrekontu-aurrezkiari buruzkoa eta arreta jarraitua eta urgentziazkoa hobetzeko nahiz itzarote zerrendak gutxitzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- Galdera, hezkuntza-eskaintzaren berritasunei eta 2016-17 ikasturterako ikasle-onarpena arautuko duen eskolatzeko araudiari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, FITUR 2016ren ediziorako aurreikusitako diren ekintzei eta haiek izanen duten kostuari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, TRW Automoción España eta Alstom Renovables España, S.L. (General Electric) enpresek aurkeztutako enplegu erregulazioko espedienteen aurrean Gobernuak izanen duen jarrerari eta hartuko dituen neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (8. or.).
- Galdera, TRW-Landabenen iragarritako deslokalizazio-prozesua dela-eta Nafarroako Gobernuak abiarazi dituen jarduketara edo ekimenei buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan dauden atalburutzei eta bulegoburutzei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak bere babesa ematen dien Nafarroako Unibertsitate Klinikari buruz Koldo Martínez jaunak argitaratu dituen txioei. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, TRW Automotive España, S.L. enpresak Volkswagen Navarra, S.A.ko zuzendaritzarekin eta Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin enpresaren etorkizuneko egoerari buruz izandako bilerari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, TRW Automotive España, S.L. enpresak Volkswagen Navarra, S.A.ko zuzendaritzarekin eta Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin enpresaren etorkizuneko egoerari buruz izandako bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2015eko abenduan, Landabengo poligonoan dagoen TRW Automotive España, S.L. Enpresaren zuzendaritzak Enpresa Batzordearen ordezkari bilera formal batean adierazi zien kontaktuak eta

bilerak izan zituztela egun horietan, bai Volkswagen Navarra, S.A.ren zuzendaritzarekin, bai Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin; bilera horietan, ustez, enpresaren etorkizuneko egoerari buruz aritu ziren, baina TRWren zuzendaritzak langileen ordezkari ez zien behin ere xehetasunik eman bilera horien eduki zehatzari buruz.

2016ko urtarrilaren 12an, langileen ordezkari legalek enpresaren zuzendaritzaren aldetiko informazioa jaso ostean, zuzendaritzak tokiko hedabideen bidez jakinarazi du TRWk enplegu-erregulazioko espediente bat planteatuko duela, deuseztatu beharreko kontratu-kopurua zehaztu gabe –ez da 60koa baino txikiagoa izanen; izan ere, plantillaren % 10i eragin behar dio gutxienez ere, kaleratze kolektiboaren bide hau planteatu ahal izateko–, eta 2016ko urtarrilaren 19a planteatzen da langileen ordezkariekin kontsultak egiteko abiarazi beharreko aldiari hasiera emateko data gisa, lan arloko legedi indarduna betetze aldera.

Zer eduki jorratu ziren bilera horietan, eta zer planteatu zion enpresak Nafarroako Gobernuari? Zein da enpresaren eta enpresako langile-plantillaren etorkizuna? Nafarroako Gobernuak inolako jarduketarik aurreikusi al du planteatu den enplegu-erregulazioko espedientea dela-eta?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Liburutegia kudeatzeko sinatutako iraganaldi baterako hitzarmenari buruzkoa.

CONSUELO SATRÚSTEGUI MARTURET ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Consuelo Satrústegui Marturet andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Liburutegia kudeatzeko sinatutako iraganaldi baterako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Consuelo Satrustegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin izan dugunez, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak iraganaldi baterako hitzarmen bat sinatu dute, zeinaren arabera berriz ere publikoa izanen baita Iruñeko Alde Zaharrean dagoen San Frantzisko liburutegia. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Sinatutako hitzarmenak zer jasotzen du zehazki? Zer indarraldi du?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Consuelo Satrustegui Marturet

Galdera, Prestazio Handiko Trena dela-eta egindako obrarengatik Sustapen Ministerioari 30 milioi euro erreklamatzeari buruzkoa eta hitzarmenaren jarraipen batzordearen hurrengo bilerari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Prestazio Handiko Trena dela-eta egindako obrarengatik Sustapen Ministerioari 30 milioi euro erreklamatzeari buruzkoa eta hitzarmenaren jarraipen batzordearen hurrengo bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Asteon jakin dugunez, Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministerioari erreklamatzeko dio, bi gobernuen artean sinatutako akordioaren indarrez, 30 milioi euro ordain ditzan Prestazio handiko Trena dela-eta egindako obrarengatik, bai eta hitzarmenaren jarraipen-batzordeak aurki bilera bat egin dezan ere, gaia aztertzeko. Halaber, Manu Ayerdi Olaizola kontseilariak adierazi duenez, egungo Nafarroako Gobernuaren borondatea da hitzarmen horren baldintzak aldatzea, uste baitu

hitzarmen hori garestiegia dela foru erkidegoaren funtsentzat.

Eguno egoera eta gaiari buruzko jarrera horiek ikusita, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer urrats egitea aurreikusten du gai hori dela-eta?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, CUNek Unibertsitateko langileei 2012, 2013, 2014 eta 2015. urteetan egiazki emandako osasun laguntzei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, CUNek Unibertsitateko langileei 2012, 2013, 2014 eta 2015. urteetan egiazki emandako osasun laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, jakin ondoren Osasun Departamentuaren asmoa dela bukatutzat ematea Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Klinikaren arteko kontra-

tua, zeinaren bidez osasun-laguntza ematen baitzaie Nafarroako Unibertsitateko langileei, honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Osasun Departamentuak ba al dauka Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileei 2012, 2013, 2014 eta 2015ean egiaz emandako osasun-laguntzen berri?

– Emandako laguntzaren arabera ezartzen al zen ordainketa, ala urteko diru-kopuru finko bat zen?

– Ba al dakizue Nafarroako Unibertsitate Klinikari emandako dirua laguntzei buruzko datu zehatzetan oinarritutako kalkulu baten arabera ote zen, ala datu-oinarririk gabe erabakitako diru-kopuru bat zen?

– Hitzarmenean jasotzen al zen emandakoari dagokionez doikuntzaren bat egiteko aukera, baldin eta egiazko laguntza-beharrizanak bat ez bazetozen emandako diru-kopuruarekin?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea.

Galdera, TRW eta General Electric enpresen egungo egoerari eta horrek Nafarroako Gobernuak egindako erreforma fiskalarekin izan dezakeen loturari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, TRW eta General Electric enpresen egungo egoerari eta horrek Nafarroako Gobernuak egindako erreforma fiskalarekin izan dezakeen loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko

lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin dugunez, TRW enpresa multinazionalak erabaki du urtarrilaren 19tik aitzina kaleratze kolektibo bat negoziatzen hastea eta kostuak murriztea Landabengo lantegian, kalteu kopurua zehaztu gabe.

Aldi berean heldu dira albiste hori eta General Electric multinazionalaren iragarpena, Buñuelgo bere lantegia itxi eta bere 103 langileak kalera-tzekoa.

Egoeraren larritasuna ikusita, zuk, Nafarroako Gobernuko lehendakari zaren aldetik, zer iritzi daukazu gertakari horiei buruz? Zure ustez, onetsi duzuen erreforma fiskala eraginik izaten ari al da erabaki horietan eta Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen ari den enpresen alde-egiteen aldean?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko osasun-hitzarmena bertan behera uztearen ondorioz sortuko den aurrekontu-aurrezkiari buruzkoa eta arreta jarraitua eta urgentziazkoa hobetzeko nahiz itxarrote zerrendak gutxitzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko osasun-hitzarmena bertan behera uztearen ondorioz sortuko den aurrekontu-aurrezkiari buruzkoa eta arreta

jarraitua eta urgentziazkoa hobetzeko nahiz itxarrote zerrendak gutxitzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballe-
rok honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako
Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz
erantzun dezan:

Argi dago oinarritzko osasun laguntza eta espe-
zializatua hobetu eta sendotu beharra dagoela,
iragan legegintzaldian egindako murrizketen ondo-
rioz.

Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko osasun-
hitzarmena bertan behera utziz, aurrekontu-balia-

bide ugari geldituko da baliagarri; izan ere, bi milioi
euro inguru aurreztuko dira.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zertara bideratuko da Nafarroako Unibertsitate
Klinikarekiko osasun-hitzarmena bertan behera
uztearekin aurrekontuetan sortuko den aurrezkoa?

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu
osasun laguntza jarraitua eta urgentziazkoa hobe-
tzeko eta itzarote zerrendak murrizteko?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, hezkuntza-eskaintzaren berritasunei eta 2016-17 ikasturterako ikasle-onarpena arautuko duen eskolatzearaudiari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko
urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen,
besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gur-
pegui jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntza-
eskaintzaren berritasunei eta 2016-17 ikasturtera-
ko ikasle-onarpena arautuko duen
eskolatzearaudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-
lean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talde-
ari atxikitako Carlos Gimeno Gurpeguik, Legebil-
tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-
an, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran
ahoz erantzun dakion:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernurako programa-akordioan
–2015-2019 legegintzaldia– adierazten dira
hezkuntza politika gidatuko duten printzipioak.

Besteak beste aipatzen dira ekitatea eta inklu-
sioa, kohesio soziala, hezkidetzeta eta diskrimina-
ziorik eza.

Akordioan berretsi egiten da hezkuntza publi-
koarekiko, irakasleekiko, familiekiko eta hezkun-
tza-erkidego osoarekiko konpromisoa.

Esplizitatu egiten da lehenetasun politiko bat
dela irakaskuntza publikoaren garapena.

Halaber, esplizitatutako akordioetako bat da
aldatu egiten dela hezkuntza-eskaintzaren antola-
mendua, bai eta eskolatzearaudi ere, ikasle-
onarpenari nahiz ikastetxeen eragin-eremuei
buruzkoa, lehenetasuna emate aldera ikasleak
ingurune hurbilean eskolatzeari eta zonifikatzeari,
eta ekidite aldera diskriminazio oro, ikaslearen edo
haren familiaren jatorri, erlijio, sexu, gaitasun
nahiz beste edozein inguruabar indibidualen
ondoriozkoa.

Galderaren testua

Zer berritasun zehatz jasoko dira 2016-2017
ikasturteko ikasle-onarpenari buruzko eskolatzeara-
audian eta hezkuntza-eskaintzaren antolamen-
duan?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, FITUR 2016ren ediziorako aurreikusi diren ekintzei eta haiek izanen duten kostuari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, FITUR 2016ren ediziorako aurreikusi diren ekintzei eta haiek izanen duten kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zioen azalpena

FITUR-Nazioarteko Turismo Azoka urtarrilaren 20tik 24ra bitarte egingen da aurten, Madrilen.

Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitateko turismoa sustatzearen, erakusmahai bat jarri izan du bertan, bai eta langileak kontratatu, parte-hartzaileen bidaiak erreserbatu, materiala ipini, eta komunikazioak eta azoka honetan parte-hartzearekin lotutako beste kontusail batzuk gaitu.

Galderaren testua

Zer ekintza aurreikusi dira 2016ko FITUR azokarako? Zein izanen da kostua?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, TRW Automoción España eta Alstom Renovables España, S.L. (General Electric) enpresek aurkeztutako enplegu erregulazioko espedienteen aurrean Gobernuak izanen duen jarrerari eta hartuko dituen neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, TRW Automoción España eta Alstom Renovables España, S.L. (General Electric) enpresek aurkeztutako enplegu erregulazioko espedienteen

aurrean Gobernuak izanen duen jarrerari eta hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2016ko urtarrilaren 12an, TRW Automoción España enpresak Iruñeko lantegiko langileen ordezkariari iragarri zien kaleratze kolektiboko prozedura abiaraziko duela faktorian, zeinean 620 langilek lan egiten baitute.

Biharamunean, urtarrilaren 13an, jakin zen potentzia handiko haize-aerosorgailuen turbinak fabrikatzen dituen Buñuelgo Astom lantegiko 103 langileak –lantegi hori General Electric-ena da 2015eko azaroaz geroztik– maiatzetik ekainera bitarte kaleratuko dituztela, konpainia berriaren berregituratze-prozesuaren barruan; izan ere, lantegi hori itxi eginen dute.

Bi albiste horiek ezagututa, Nafarroako Gobernuak dio zuzemenak egiten ari dela, ahal den informaziorik gehiena biltzeko TRWk Iruñean iragarritako kaleratze kolektiboari buruz eta General Electric-ek Buñuelen daukan lantegiaren itxierari buruz, “ahal den modurik aldekoenean” eragiteko xedez.

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuak zer jarrera izanen du enplegu-erregulazioko bi espediente horiek Nafarroako Gobernuaren Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusian aurkezten direnean? Zer neurri aurreikusten du enpresa horietako lanpostuak mantentzea bermatzen saiatzeko eta inbertsioak mantentzeko?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, TRW-Landabenen iragarritako deslokalizazio-prozesua dela-eta Nafarroako Gobernuak abiarazi dituen jarduketa edo ekimenei buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, TRW-Landabenen iragarritako deslokalizazio-prozesua dela-eta Nafarroako Gobernuak abiarazi dituen jarduketa edo ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera

hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

TRW multinazionalak iragarri du enplegu-erregulazioko espediente bat aurkeztuko duela, plantillaren parte bat kaleratzeko eta Landabengo bere lantegiko lan-kostuak murrizteko. Eskueran dauden informazioen arabera, enpresak erabaki du produkzioaren parte bat taldearen beste lantegi batera deslokalizatzea.

Egoera hori dela eta, honako hau jakin nahi da:

- Nafarroako Gobernuak zer jarduketa edo ekimen abiarazi ditu, Landabengo TRW enpresan iragarritako deslokalizazio-prozesua dela-eta? Zer neurri hartzea darabil gogoan Nafarroako Gobernuak, ekiditen saiatze aldera enpresa-deslokalizazioko prozesuak eta horien ondorioak (lanpostugalera eta jarduera ekonomikoaren beherakada)?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan dauden atalburutzei eta bulegoburutzei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foru Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan dauden atalburutzei eta bulegoburutzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamariquek gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko urtarrilaren 21ean egin beharreko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen 2002 eta 2003rako lan-baldintzei buruz Administrazioak eta CCOO, UGT eta CENSATSE sindi-

katuek 2002ko apirilaren 15ean sinatutako akordioa aplikatuz, Nafarroako Gobernuak 2002ko irailaren 16ko Erabakia hartu zuen, zeinaren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitatean eta haren erakunde autonomoetan atalburu- eta bulegoburu-postuak betetzeko jarduketa plana.

2015eko urriaren 15ean, programa-akordioaren jarraipen-batzordeak aho batez onetsi zuen Gobernuari zuzentzea, zertarako eta data horretatik aitzina lehiaketa bidez bete zitezten Foru Administrazioko edozein zerbitzutako atalburuen eta bulegoburuen lanpostuak, berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunen printzipioei jarraituko dien lehiaketa-deialdi baten bidez, balorazio politikorako inolako tarterik utzi gabe.

Hori guztia ikusita, parlamentari honek Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari galdetzen dio zenbat atalburutza eta bulegoburutza dauden Foru Administrazioan eta haren menpeko erakunde autonomoetan, zenbat bete diren 2002ko irailaren 16ko erabakia betetzeko, eta zer plangintza egiten ari den departamentua jarraipen-batzordearen iragan urriaren 15eko erabakian jasota dagoen agindu politikoa betetze aldera.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko Lehendakariak bere babesa ematen dien Nafarroako Unibertsitate Klinikari buruz Koldo Martínez jaunak argitaratu dituen txioei.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko Lehendakariak bere babesa ematen dien Nafarroako Unibertsitate Klinikari buruz Koldo Martínez jaunak argitaratu dituen txioei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikitako Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Uxue Barkosek erantzun diezaion:

- Nafarroako lehendakari Uxue Barkosek bere babesa ematen al die Nafarroako Unibertsitate Klinikari buruz Koldo Martínez jaunak argitaratutako txioei?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

